

# Mondragon Unibertsitatea, errendimendu altueneko 10 unibertsitateen artean kokatuta dago CyD 2017 Rankinaren parametroen arabera

2017/05/24

## CYD 2017 rankina

Orain gutxi, CyD Fundazioak, CyD Rankinaren 4. edizioa argitaratu du. Espainiako 69 unibertsitatek hartu dute parte eta 17 ezagutza eremu eta 33 adierazle aztertu dira. Guztiak, hiru ataletan sailkatu dira: errendimendu altua, erdi mailako errendimendua eta errendimendu txikia.

CyD Rankinak, U-Multirank rankinarekin partekatzen ditu helburu eta metodologia, azken hau, Europar Komisioak bultzatzen du eta nazioarteko rankina da. Espainiako unibertsitateen arloan, CyD Fundazioa lankide du.



## Mondragon Unibertsitatearen emaitzak

Aurreko edizioetan bezala, aurtengoan ere, Mondragon Unibertsitatea, errendimendu altueneko 10 unibertsitateen artean kokatzen da (zehazki zortzigarrena)

Bereziki, “**ezagutzaren transferentzia**” nabarmentzen da, non, aztertutako ia adierazle guztietan, balorazio altua jaso duen: ikerketarako baliabide pribatuen lorpena, formazio jarraieren bitartez lortutako sarrerak, enpresekin batera lortutako patenteak, sortutako spin-offak eta enpresekin batera egindako argitalpenak.

“**Irakaskuntza**” dimentsioan, errendimendu altuarekin bereizten dira graduazio tasak bai graduan eta baita ere master mailan.

“**Nazioarteko**” dimentsioan aipagarriak dira ikasleen mugikortasuna eta “**eskualdeko garapena**” arloan, eskualdeko erakundeekin egindako argitalpenak eta unibertsitatearentzat lortutako eskualdeko ikerketa fondoak nabarmentzen dira.

## CYD rankina eta U-MULTIRANK

Rankin orokorrekin alderatuz, non, mota bakarreko unibertsitateetan dago jarrita begia – ikerketa arloan mundu mailan punta-puntakoak diren unibertsitateak – adierazle sintetikoak garatuz, U-Multirank eta CyD Rankina, erlatiboak diren adierazko kopuru handi batekin osatzen dira, absolutuak ez diren adierazleak. Honek, aukera ematen du, antzeko profila duten unibertsitateen artean, alderaketa analisisa egiteko. Bere helburua ez da unibertsitate hoberena zein den esatea baizik eta emaitzak errendimendu taldeetan aurkeztuz, norbanakoak, lehenesten dituen adierazleen arabera, bere ranking propioa egitea.

Unibertsitateen eta bere esparruen egoera 5 dimentsiotan alderatzen ditu: irakaskuntza, ikerketa, ezagutzaren transferentzia, nazioarteko orientazioa eta eskualdearen garapenari egiten zaion ekarpena.